

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko urriak 11 - 1328 zenbakia

ILUNTASUNEAN ARGIA EGITEN



Etxeko aseguruak
estimatzen duguna
babesten du.
Altzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, ballo
handiko gauzak...
Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKi
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta preventzioa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
779 kolegiataria.
- FISIOTERAPIA
- KIBRE, LENSOAK
- Puztutako eta TERTULORRIAK
- K. ortotik + K. FISIOTERAPIA
ABERASTUA, 20
Tel: **943 53 06 42**
ane_mendia@hotmail.com



Esku onetan egotearen
ziurtasuna,
inon ere zure osasunagatik,
Eskuzko eta Injezioaren bidez.

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82 bista eder, 19
www.bistader.es



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

Errebal, No. 2001001

Amaia & Esnaola
ODONTOLÓGIA

Ferrnán Calbetón 10 - 1. esk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 38
amaia@amaiaodontologia.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702886



Maitane G. Iniguez
Odontologian Lizentziatua
943 537

- San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
- 943 537 076 - 688 684 808
- info@eibarclinicadental.com
- www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Irantzu Pastor eta Igone Mariezkurrenaren "Lumineszenteak" erakusketa zabaldu dute Andretxean, emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari buruzko 63 istoriorekin. Bertan India, Palestina, AEBetako Lakota herriko eta Euskal Herriko hainbat emakume anonimoren istorioak kontatzen dizkigute.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Irantzu Pastor

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eskola Kirola eta hezkuntza

Irailaren amaieran ERAIN Elkarteak (Hezkuntza ez formaleko Eibarko Elkarteak) eta Eibarko Udalak hitzarmena sinatu dute Eskola Kiroleko jarduerari hasiera emateko. EH Bilduren ustez, tamalgarrria da ikasturtea hasi aurretik akordioa itxi ezin izana, izan ere, Aldundiko teknikariak esku hartu ezean une honetan ez litzateke eskola kirolik egongo Eibarren. Espero dugu aurrerantzean udalak dagokion erantzukizuna beregain hartzea, eta familiek udal kudeaketaren akatsak erantzun beharrik ez izatea. Adibidez, udalari ordaintzea dagokion diru partida guraso elkarteek aurreratu behar izatea.

Adierazi nahi dugu, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideak kontuan hartuz gero, Eibarko eskola kirola zaharkituta dagoela nabarmena dela, eta, beraz, gaurkotzea dagokiola; “Eskola Kirola egituratzeko diagnostikoa eta proposamena” txosteneko datuak ikustea besterik ez dago. Gainera, “Eibarren segregazio egoerari aurre egiteko prozesua”ren emaitzen txosteneko datuak gehitzen baditugu, Eibarko hezkuntza eta eskola kirolaren egoera oso kezagarria dela ondorioztatzen da.

Badakigu Athlon enpresa udalarekin lanean ari dela Aldundiaren gomendioz; beraz, eskerri eta desio dugu Eibarko eskolek merezi duten lekua izatea kirolean, eta etorkizunean udalak dagozkion ardurak betetzea.

Arlo horretan Udalak gauza asko ditu hobetzeko, eta espero dugu eskola kirolari eta hezkuntzari dagokion garrantzia ematea.

Komeni da gogoratzea 2022ko iraileko osoko bilkuran aho batez onartu zela Eibarko Eskola Kontseilua sortzea eta martxan jartzea, eta 2023ko uztaileko osoko bilkuran berriro aztertu zela gai hori. Alderdi guztiok berretsi genuen Eibarko Hezkuntza Kontseilua martxan jartzearen premia, eta Jon Iraola alkateak esan zuen: «Kontseiluak kudeatuko lituzke hezkuntza arazoak, eta segregazioaren arazoari ere helduko litzaioke».

Bi urte igaro dira 2022ko lehen akordio hartatik, eta urtebete baino gehiago 2023ko uztailean adostutako erabakia martxan jartzeko eskatu zenetik. Hala ere, gaur egun, oraindik ez dago Eibarko Eskola Kontseilurik Hezkuntzaren baitako arazoak jorratzeko, eta udal gobernuak beste alde batera begira jarraitzen du. Larria da hezkuntza Eskubide Unibertsala izanik, Udal Gobernuak lehentasunezko gaitzat ez hartzea.

Eibarko EH Bilduren udal-taldea

Hortik esanak



Zergatik lehenesten dugu tomate-zukua abioietan? Alemanek eurek ere garagardoa bezain beste eskatzen dute, lurrean halakorik ez denean ematen. Fraunhofer ikerketa institutuak argitu du asuntua. Abioiak 10 kilometroetako altueran egiten dute hegan: altuera horretan airea ezin da arnastu eta hotza ezin da jasan. Bidaiariaren kabina isolatu eta presurizatu egiten da, eta bertako atmosferak 1.500 metrotako altueran dagoen oxigenoari eusten dio; hezetasuna, bestalde, %10-15ekoa da. Horrek gure zapore-sentsazioa aldatzen duenez, askotan diogu abioietako janaria oso txarra dela: janaria berdina da, baina guk ez dugu horrela sentitzen. Umami zaporea da hor salbuespena, baldintza horietan hobeto dagokiguna. Eta tomate-zukuak zapore hori sortzen duen glutamato asko duenez, nahiago dugu tomate-zukua eskatzea.

FELIX ARES, zientzialaria

Genero berdintasunaren aitzakian bultzatzen diren gorputz politikak norabide bakarrekoak dira. Gorputz ariketari dagozkion sustapen politikek emakumeak kirola egitera bultzatzen dituzte. Ez dago ahalegin txikiena ere gizonetzkoak dantza egitera bultzatzeko. Kirolaren sustapena hezkuntza eta osasun sistemen parte garrantzitsua da. Dantza, hezkuntzaren eta osasunaren ikuspuntutik edozein kirol praktika bezain onuragarria izan arren, ez da bultzatzen. Zergatik? Ba maskulinitateak ez duelako dantza bere jardueratzat hartzen.

Lotsa eta erridikuluarekin lotzen du dantza maskulinitateak. Gure gorputza da lotsa eragile nagusietakoa eta, zer esanik ez, gorputza mugimenduan jartzen dugunean. Bai kirolean, bai dantzan, gure gorputza jende aurrean mugimenduan jartzeak autokonfiantza handia eskatzen du. Jarduera fisiko batean trakets moldatuz gero berehala agertzen da lotsa. Kirolean, autoestimuan galera handia izaten dute emakume gehienek eta gizonetik gutxitasun-komplexua garatzen dute. Kontrara, gizonetzko gehienek autoestimua sendotzen doa kirolean emakumeekiko sentitzen duten nagusitasunak lagunduta.

OIER ARAOLAZA, dantzan.eus

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARTEDUN → Oinordekoa. “Partedunak gara, aurreko gizaldietan bildu dan jakintza eta aberastasunetan”.

1972

Kros lasterketa Txaltxa Zelaian

Kiroldegiak eta bestelako kirol-instalazioak egin aurretik ere, era guztietako kiroleko zaletasun handia egon da betidanik Eibarren, eta proba asko Untzaga plazan eta Txaltxa Zelaian jokatzeko ziren. Korrikalariaren atzean probaleku zaharra ikusten da.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 11
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
ZAPATUA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 14
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 15
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 16
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 17
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
BARIXAKUA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Asuncion Gorostidi Zubillaga.**
93 urte. 2024-10-01.
- **Ramona Agirre Sarasola.**
99 urte. 2024-10-02.
- **Pedro Conejero Herrera.**
72 urte. 2024-10-04.
- **Yolanda Rodriguez Benito.**
50 urte. 2024-10-05.
- **Pilar Alkorta Lejarazu.**
88 urte. 2024-10-06.
- **Miren Urrea Hualde.**
70 urte. 2024-10-06.
- **Juan Manuel Zengotitabengoa Urizar.**
89 urte. 2024-10-06.
- **Pili Bartolome Bartolome.**
73 urte. 2024-10-06.
- **Arrate Uriguen Agirreazaldegi.**
79 urte. 2024-10-06.
- **Adeodato Hernandez Martin.**
84 urte. 2024-10-07.
- **Vicente Garcia de Amezaga Etxebarria.**
94 urte. 2024-10-08.



Debarrenako Minbiziaren Aurkako Elkarreak hainbat jarduera antolatu ditu

Debarrenako Minbiziaren Aurkako Elkarreak hainbat jarduera antolatu ditu Eibarko bere egoitzan, herritar guztien beharrei erantzuteko. Elkarreak doako tailerrak eskaintzen dizkie pazientei, senideei eta herritar guztiei, eta horrekin batera, arreta sozial eta psikologikoa, material ortopedikoaren mailegua, erretzeari uzteko terapia eta beste hainbat eskaintzen dituzte. Datozen aste-

tarako antolatu dituzten jardueren artean, pazientei zuzendutako arnasketa tailerra (urriaren 16tik azaroaren 20ra), pazientei zuzendutako “Fisioterapia eta kirurgia” hitzaldia (urriak 24), senideei zuzendutako dolu-taldea (azaroaren 7an hasiko da) eta ibilaldi osasungarriak, herritar guztientzat daude. Informazio gehiagorako elkarrearen webgunean begiratu, edo 943 45 77 22 telefonora deitu daiteke.

Ondarearen Europako Jardunaldiak ospatzeko bisitak egingo dituzte Museoan

Eibarko Armagintza Museoak bat egingo du 2024ko Ondarearen Europako Jardunaldiekin. Aurten go leloa, “Kultur bideak, ibilbide”, sare eta konexioen ondarean dago oinarrituta. Jardunaldi hauek nabarmendu nahi dute trukeek eragin handia izan dutela eta izaten jarraitzen dutela Gipuzkoako ibilbide

kulturalean. Horrela, urriaren 19an sare eta konexio historikoak ardatz izango dituen bisita gidatua egingo da Museoan, 17:00etan euskaraz, eta 18:30ean gaztelaniaz. Parte-hartzaileek herriaren bilakaera ezagutu ahal izango dute truke komertzial, industrial, sozial eta teknologikoz betetako ibilbide baten bidez

Debarreneko Gazte Asanbladen Topaketak egingo dira bihar Deban

Mutriku, Eibar, Deba eta Mendaroko gazte asanbladek egitarau zabala antolatu dute bihar Deban egingo dituzten topaketetarako. Pare bat hilabete daramatzate eskualdeko gazte asanbladek elkarrekin egitaraua prestatzen, eta diotenez “batez ere, gazteon egoeraz hausnartzeko, elkar ezagutzeko, komunitatea eraikitzeke, gure eskualdeko herrietan egin ditzakegun ekarpenetaz eztabaidatzeko, zein tokian tokiko esperientziak elkartrukatzeko eguna izango da”. Goizetik hasiko dira, 11:00etan Debako gaztetxean harrera eginda. Ondoren, gaur egungo Gazte Asanbladen erronkekin inguruko mahai-ingurua hasiko da, eta 14:30ean hasiko dira bazkaltzen. Ondoren bakarrizketak egingo dituzte Manex Astigarraga, Esti Curiel eta Asier Galarzak, eta 18:00etan hasiko dira Asanbladen arteko jolas edo olinpiadak. Karro-poteoa eta kontzertuak ere egongo dira, Obe-go eta Rebel Boys taldeen eskutik (gaztetxean, 22:30ean, eta Txola ta Potxola DJ-ek itxiko dute eguna.





Kontsumo arduratsu eta ekologikoa sustatzeko azoka antolatu dute urriaren 19rako

Urriaren 19an kontsumo arduratsu eta ekologikoaren bigarren azoka egingo da Untzaga plazan, “Ekoinpen duina, kontsumo herrikoia” goiburuari jarraituta. Aste honetan prentsaren aurrean aurkeztutako azoka Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak eta Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu dute, hainbat elkarte eta erakunderen lankidetzarekin (Eibarko Udala, Debemen Debabarreneko landa-garapeneko

elkartea, eta ENNEK-Ekolor Euskadiko nekazaritza eta elikadura ekologikoaren kontseilua, besteak beste.

Azoka 10:00etatik 14:30era bitartean egongo da zabalik, eta parte hartuko duten 15 ekoinplek sasoiko eta tokiko produktu ekologiko ugari eskainiko dituzte. Gainera, ENNEK-Ekolurrek 5 euroko bonuak ipini ditu eskuragarri udaletxeko atezaintzan, agortu bitartean doan hartzeko. Eta azoka-egunean, pro-

duktuz betetako bi otar zozketatuko dira. Produktu ekologikoen postuez gain, hainbat informazio-gune ipiniko dira azokan, herritarrei kontsumo ekologiko eta arduratsua-ekin lotutako ekimenen (bidezko merkataritza, moda, osagarriak eta ongizatea) berri emateko. Egunerokoan erabiltzen ditugun produktuak konpondu edota birziklatzeko guneak ere egongo dira azokan, baita umeentzako birziklatze-tailerrak, bi argazki-erakusketa, bizikletak konpontzeko gune bat, eta showcooking bat ere.

Bestetik, azoka ezagutzera emateko kartela lehiaketa bidez aukeratu dute, eta Leire Kareaga Udal Dibujoko Eskolako irakasleak aurkeztutakoak eraman du saria.

Datorren asterako bi hitzaldi antolatu dituzte Beheko Toki gizarte zentrukoek

Beheko Tokia gizarte-ekintzarako guneak hitzaldi bi antolatu ditu datorren asterako. Eguenean, 17:00etatik aurrera, Jon Iraola alkatea arituko da berbetan, Hijos de Gabilondo eraikinaren eraiste partzialari eta birgaitzeari buruzko azalpenak emateko. Eta hurrengo egunean (urriaren 18an) Antonieta Gallastegi abokatua eta Sonia Archelli Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia bizi testamentuari eta azken borondateen adierazpenari buruz arituko dira, 17:00etan hasita. Bi hitzaldiak herritar guztientzat zabalik egingo dira, Karmen kalean jubilatuek daukaten egoitzan.



FINAL-LAUDENAK

EIBAR

Urriak 19, larunbata, 17:00
Coliseo Antzokia

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

Agn Lathury Reate Aixa Maria Elizabete Aritz Igarzabal Eneko Antxategi Agirre Nerea Arana Cantoral Maitx Salazar

www.bertsolarie.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsolarierak.eus

eta kitto!

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako Eibarko final-laurdenetarako bi sarrera bikoitzen zozketa egingo dugu

Urriaren 19an, 17:00etatik aurrera, Coliseo antzokian jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetarako bi sarrera bikoitz zozketatuko ditugu Interneten, gure webgunearen bitartez. Urriaren 16ra arte daukazu parte hartzeko aukera, www.etakitto.eus webgunean sartu eta bertan aurkituko duzuen formularioa beteta. Hori egiten duzuen guztien artean zozketa egingo dugu, bi irabazleak aukeratzeko. Saridunak urriaren 17an jakinaraziko ditugu, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sare sozialetan eta web-orrian. Animatu eta parte hartu!

Palestinari babes a adierazteko manifestazioa egingo da domekan

Israel Gaza bonbardatzen hasi zeneko urtea bete den honetan, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez elkarrekin manifestazioa antolatu dute domekarako, "Palestina askatu" goiburuarekin. Untzagatik irtengo da manifestazioa, 12:00etan, eta Palestinako herriari babes erakusteko bertan parte-hartzeko deia luzatu diete eibartarrei.



Egogaineko janariari Mogel Ikastolako gehitu diote 'Rexcatering' makinan

Ikasturtea hastearekin batera, J.A. Mogel Ikastolako jakiak ere ipini dira eskuragarri Egogain Gerontologia Zentruan dagoen "Rexcatering" Eibarko Zero Hondakin makinan, Egogain egoitzako janariarekin batera. Proiektu pilotu horrekin, Udalak elikagaien xahuketari aurre egin nahi dio, elikagai-soberakinak erabili nahi dituen ororen eskura jarrita eta urrats bat harago joanda

hondakin organikoaren prebentzioan eta "Zero Zabor" ekimenaren kudeaketan. Eibarko Garaguneak eta Goyeneche Fundazioak ere hartuko dute parte ekimenean. Jasotako elikagaiak hiritar guztien eskura daude, doan hartzeko, Legarreko Egogain adinekoen egoitzaren konpoaldean (frontoiaren ondoan) dagoen vending makinan (Eibarko Zero Zabor Hozkailua).



Barixakuak Jolasian gaur 17:00etatik aurrera Egigurentarreneko parkean

Gaur itzuliko dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak herriko auzoetara. Gainera, gaur leku berri batean, Egigurentarren kaleko parketxoan egingo baitira jolasak estreinekoz, 17:00etan hasita. ... eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eskaintzen den aisialdirako ekintza honek 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak eskaintzen ditu, eskolatik kanpora euskaraz praktikatzeko aukera izan dezaten. Jolasak Astixako begiraleen laguntzarekin egiten dira, nahi duten haur guztiak hartu dezakete parte eta doan da.

“Zeinek hil zuen Andres de Astigarraga?” ihes-gela

“Zeinek hil zuen Andres de Astigarraga?” izeneko ihes-gela eskainiko du Armagintza Museoak. Jarduera 4-6 laguneko taldeentzat diseinatuta dago, euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, eta 45 minutu eta ordubete arteko iraupena izango du. Talde bakoitzeko prezioa 60 eurokoa da, eta gutxienez 10 egun lehenago erreserbatu behar da: 943 70 84 46 edo 943 70 84 00 telefonoetara deituta, posta elektronikoz (museoa@eibar.eus) edo Museoan eskabidea egin da, Pegoraren bidez egin daitezke erreserbak.

Ehundu programak ekintzaileei negozio-plana abiatzen lagunduko die aurten ere

Hirian jarduera ekonomiko berriak abiaraztea helburu duen Ehundu programaren deialdi berria abiatu dute Udalak eta Debegesak. Eskaerak aurkezteko deialdia urte osoan egongo da zabalik, aurrekontua agortu arte. Zehazki, programaren bidez profesional adituak kontratatzea edo beste baliabide batzuk eskuratzea sustatzen da, eremu hauekin lotuta: jabetza intelektuala eta/edo patenteak; maketa-lanak, prototipoen garapena edo proba-bankuetarako eta/edo laborategietarako sarbidea; merkatu edo sektore zehatzetako prospekzio-azterketak; arau-azterketa espezifikoak, ezaugarri bereziak edo konplexuak dituzten sektore edo jardueretan; eta ziurtagiri teknikoiei buruzko azterketak.

Programak, aldi berean, ekintzaileei hainbat aukera ematen die: komunitate ekintzaile baten parte izateko erraztasuna, Debabarrene-

ko enpresa industrialen sarerako sarbidea, Debegesan kokatutako Udalaren inkubagailuaren instalazioen erabilera eta beste hainbat. Baliabide horiek eskuratzeko, beharrezkoa da negozio-plan bat garatuta izatea (proiektuaren alderdi kritikoak zehazten dituena), baita jarduera Eibarren garatzeko konpromisoa hartzea ere.

Udalak zehaztutako sektore estrategikoekin bat etorrira, programak lehenatasuna ematen die jarraian datozen sektoreekin lotutako ekimenei: doitasunezko ingeniariak, industriarekin lotutako zerbitzuak, 4.0 industria, klima-aldaketa eta energia iraunkorra, eta kirolarekin lotutako teknologiak.

Eskaera aurkezteko interesa dutenek <https://heldueibar.debegesa.eus/eu/ehundu/web-orrian> eman beharko dute izena, edo ekintzaile@debegesa.eus helbide elektronikora idatzi.



IOKIN ELORTZA

Farmazialarien mundu eguna

Joan den irailaren 25ean Farmazialarien Mundu Eguna ospatu genuen. Egia esan, oso lanbide baloratua eta gertukoa da gurea gizartean, baina baita ezezaguna ere kasu askotan. Askok pentsatzen dute gure lana farmaziako atetik norbait sartzeko zain egon eta dagozkion botikak ematea dela. Eta bai, hori ere bada, baina baita gauza askoz gehiago ere.

Sendagaiak emateaz gain, funtsezko zeregina dugu prebentzioan, laguntzan eta aholkularitzan. Lehen lerroan gaude, eta, kasu askotan, osasun-arazo baten aurrean gertukoaren gauden osasun langileak gara. Horrek, aukera ematen digu gaixotasunak goiz detektatzeko eta beharrezkoa denean osasun arretara bideratzeko.

Pandemian zehar argi ikusi zen farmazialariak funtsezkoak ginela, eta nahiz eta orain horren nabarmena ez izan, funtsezkoak izaten jarraitzen dugu, are gehiago osasun sistemaren azken garaietako gabeziak ikusita. Jendearen beharrei erantzuteko zabalik egon ginen eta beti egongo gara, gure hurbiltasuna baita gizarteari gehien lotzen gaituena.

Osasunari buruzko aholkuak ematen ditugu, sendagaiak behar bezala hartzea sustatzen dugu, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen lagundu eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu: tentsio-kontrola, diabetesari buruzko kontrola eta abar luze bat gizartearen ongizatea lortzeko.

Badakizue beti egongo garela hor, zuek artatzeko, konfiantzazko harremana sortuz eta laguntza emozionala eskainiz. Guk horrela sentitzen dugu gure lana, baina zuek nola ikusten gaituzue?

**“Farmazialariok,
sendagaiak
emateaz gain,
funtsezko zeregina
dugu prebentzioan,
laguntzan eta
aholkularitzan”**

EHUNDU Debegesak Eibarko Udalarekin lankidetzan garatutako ekintzailtza programa da. Negozio plan berritzaile bat garatuta eta argitu gabeko behar espezifikoak dituzten pertsonentzat pentsatuta dagoen programa da.

Izena emateko epea zabalik dago Debegesaren webgunean.

EHUNDUren bidez, zure enpresa abian jartzeko dituzun zalantzak argituko dituzu, zure proiektuak behar dituen arloetako adituen aholkularitza pertsonalizatuari esker.



LETICIA SANCHEZ • EHUNDU programako ekintzailea

“EHUNDUren bidez, behar nuen aholkularitza teknologikoa eman didate”

Leticia Sanchez eibartarrak gidatzen duen KINETIX enpresak komunikazio zerbitzuak ematen ditu, eta ehungintza arloko kontsultoria moduan ere jarduten du. Alde batetik, irtenbide integralak eskaintzen dituzte funtsezko bi arlotan: Komunikazio Estrategiak eta Branding 360º. Bestalde, esan dugun bezala, ehungintza arloko enpresei zuzendutako zerbitzua ere badu KINETIXek.

Zer eskaintzen diezue ehungintza arloko enpresei?

Aholkularitza espezializatua ematen diegu, euren produkzio-prozesuen trazabilitatea hobetzen eta praktika iraunkorrak hartzen lagunduz. Gure ikuspegia sektorean berrikuntza bultzatzean datza, markek ingurumenarekiko ardura handiagoa izan dezaten bermatuz, eta euren hornidura-katearen eraginkortasuna eta gardentasuna optimizatuz.

Zergatik aukeratu zenuen ehungintzaren sektorea?

Nire etxean beti josi izan da, eta Lidergo ekintzailea eta berrikuntza-Leinn ikasketak amaitzerakoan Indiarra eta Txinara joan nintzen 2019an. Hango arazoak ikusita, hausnarketa egiten hasi nintzen eta erronka bat ikusi nuen: trazabilitatea lehengaietan. Trazabilitatea prozesu guztiak jarraitzeko gaitasuna da, lehengaiak eskuratzetik hasi eta ekoiztu, kontsumitu eta deuseztatu arte, "noiz eta non ekoizti zen eta nork ekoizti zuen" argitu ahal izateko. Ni hasierako fasearekin geratu nintzen, hau da, lehengaien fasearekin (kotoia, lihoa, likra, poliesterra eta abar hazten direnetik oihal izatera pasatu arteko fasearekin). Era berean, teknologia mundua betidanik gustatu zait, eta ehungintzaren sektorean aplikatzea beharrezkoa zela ikusi nuen. Ideia horrekin hurbildu nintzen EHUNDU programara, hori guztia aurrera eramateko kanpo-laguntza behar nuela sentitu nuelako.

Zer eskaini dizu EHUNDU programak?

EHUNDUen kontsultoria teknologikoa eskatu nuen,



hori baitzen momentu zehatz horretan behar zuena. Nire hasierako ideia teknologia-hornitzaile moduan lan egitea zen. EHUNDUen eskaini didaten aholkularitza balio izan dit, alde batetik, ezer martxan jarri aurretik, nire ideiak zentzua zeukan edo ez testatzeko. Horri esker, merkatuan ez nuela enkajatuko ikusteaz gain, inbertsio-arriskua gutxitu nuen, hornitzaile izatearen ideia baztertu eta aholkularitza-enpresa moduan jarduteko erabakia hartu bainuen. Bide batez, programak laguntza eman dit gure inguruan dagoen enpresa-mapa ezagutzeko, eta, gero, ehungintzaren sektorerara bideratu ahal izateko. Ehungintzako enpresei trazabilitatean monitoriatzen eta prozesuetan dauzkaten erronkak ebazten laguntzen diet, prozesuak eta errentabilitatea hobetzeko. Enpresarekin elkarlanean aritzen naiz eta inguruko aktore ezberdinekin konektatzen dut. Laburbilduz, esan daiteke konektatu egiten dudala bezeroa hornitzaileekin. Oso inportantea da prozesu horretan bezeroarekin batera joatea, eta PROZESUA GOZATU, hori da nire mantra.

“Hain ikusgarriak ez diren indarkeria horiek ikusarazi nahi izan ditugu”

IGONE MARIEZKURRENA ETA IRANTZU PASTOR • ‘Lumineszenteak’ lanaren egileak



Irantzu Pastor Ordoki (Lesaka, 1985) argazkilaria eta Igone Mariezkurrena Fernandez (Pasaia Donibane, 1985) antropologo eta kazetaria dira *Lumineszenteak*. Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak, eta erresilientzia historia zenbait liburuaren eta egunotan Andretxean ikusgai dagoen erakusketaren egileak. San Andres bezperara arte egongo da zabalik, eta bisita gidatua ere antolatu dute, azaroaren 28rako.

Diskurtso nagusietan oihartzunik eta lekurik ez duten emakumeen testigantzak eta argazkiak jaso dituzte urteetako lanaren emaitza den liburu mardulean. Bertako kontakizunen protagonista diren 63 emakumeak bortizkeriazko giroetan bizi edo hazi dira, hala nola okupazio militar, pobretze, behartutako lekualdatze, genozidio edo asimilazio kulturalako testuinguruetan. Egiturazko indarkeria horiek, baina, emakumeen eguneroko bizitza baldintzatzen duten eta halako errekonozimendurik ez duten beste indarkeria sotilagoekin korapilatzen dira, eta hain zuzen ere, azken horiek atera nahi dituzte argitara egileek.

Zer ikusi daiteke Eibarren aurkeztu duzuen erakusketan honetan ?

Andretxeak hartu duen erakusketak *Lumineszenteak* du izena, eta izen bereko liburutik ateratako zenbait historia biltzen ditu. *Lumineszenteak* deitu genion, liburuan eta erakusketan protagonista diren emakume guztiak inguru edo testuinguru oso ilunetan jaiotako hazi direlako. Gerra egoera, pobretze egoera, migrazio

eta horrelako egoeretan, baina, hala ere, gai izan dira bere patuari aurre egiteko, oso erresilienteak dira. Gainera, indar eta kemen hori inguruko artean kutsatzen dute, eta, horregatik, iluntasunean argia egiteko gai diren izakiak dira, eta guretzat lumineszenteak.

Erakusketarako aukeratu dituzuen emakumeak munduko toki ezberdinetakoak dira. Batetik bestera alderik ikusi duzue?

Proiektu honetan lau herrialde ikusi daitezke: India, Palestina, Lakota nazioa eta Euskal Herria. Hau lau urtetan egin genuen, urte bakoitzean bidaia bat egin genuen. Beraien artean oso ezberdinak diren lau herrialde aukeratu genituen, alde batetik ezberdintasunak garrantzitsuak direlako, eta hori ere islatu nahi genuelako, baina zoritxarrez beraien artean berdintasunak ere badaudelako, indarkeriaz eta emakumeaz hitz egiten dugunean. Leku bakoitzean bere berezitasunekin, baina zoritxarrez kaso aunitzetan, indarkeria estruktural berdinez ari gara, nahiz eta herrialde bakoitzean aldaera ezberdina hartu.

Indiaren eta Lakota nazioaren kasuan, anbigueta sexualaren adibide bi aipatu dituzue. Hirugarren



identitate sexual hori naturaltasunez-edo aitortzea deigarria egin zait...

Guk Indiaren adibidea ekarri dugu, baina egia da Indian, Pakistanen, garai batean Raj britaniarra izan zen horretan, herrialde horiek kolonizatuta izan aurretik, bazutela beraien sinesmen sistema, eta genero batekoek zein bestekoek bazutela bere lekua gizartean, baita bere funtzioa ere, eta onartuak baino gehiago zirela. Lakoten kasuan ere, kolono zuriak iritsi aurretik, beraien sinesmen sisteman ere esistitzen ziren *two-spirit people*, bi izpiritu dituzten pertsonak, hau da, ez emakume ez gizon zirenak, oso onartuak, eta jendartearen parte. Kolonizazioa izan da jo-puntuari ipini eta diskriminatu dituen.

Munduan zehar ibili ondoren, pandemia tarteko, ikusten ez ditugun indarkeria horiek Euskal Herrian bilatzen hasi zireten. Zeuen etxean horrelakoak identifikatzea kanpoan aritu zaretenean baino zailagoa izan da?

Bai, beti aipatzen dugun moduan, Euskal Herria izan zen... *Uf! Eta orain hemen, gure etxean zer gertatzen da, ezta?* Eta, neurri batean, zaila izan zen inplikatzeko due-lako geure buruen aurrera begiratzea, geure ingurura...

Geure inguruan ere badaudelako kasu gogorak, eta agian orain arte ez genituenak entzunak. Horregatik, identifikazio lan hori zaila izan zen hasieran. Arrazializatuak, arrazismoak, hemen bizi diren migranteen egoerak kontatzera jo genuen hasieran. Noski, hori oso garrantzitsua eta interesgarria da, baina pixka bat pentsatuz gero, geure gorputzetan ere indarkeriak daudela ikusi, eta horretara jo genuen. Gure gizartean, emakume zuri gazte bezala, zer sufritzen genuen ikustera. Sare sozialak, indarkeria estetikoak batez ere, iragarkiak, publizitatea, gizartean bizi dugun emakumeekiko presio estetiko hori lantzea ere interesgarria iruditu zitzaigun, bere marra gorri eta laino guztiekin. Zein zaila eta, aldi berean, zein beharrezkoa eta, batez ere, zein ikusezina den.

Besteak beste, kalean bizi den emakume baten historia jaso duzue, gogorra benetan.

Proiektuaren helburu garrantzitsuenetako bat da beharbada hain ikusgarriak edo hain esplizituak ez diren indarkeria horiek ikusaraztea. Eta kalean bizi diren pertsonak ikusgarriak dira, ikusten ditugu, baina era berean iruditu zitzaigun ikusezinenak ere ba-



BIDEOA



“Geure garai honetan, eta gauden leku honetan, geure gizarteak emakumeari aitortu dion roletako bat familia bat aurrera ateratzea da. Horregatik, askok etxean aguantatzen dute aguantaezina, kalean bizitzen amaitu eta porrota etor ez dadin”

direla. Kalean bizi bazara, eta gainera emakumea bazara, zer gertatzen den galdetu genion geure buruari. Testigantza oso gogorrek eta latzak entzun genituen. Lehenik eta behin, emakumeak kale egoera horretara iristen direnerako, gizonak baino askoz ere muturreko egoera batean daudelako izaten da normalean. Geure garai honetan, eta gauden leku honetan, gure gizarteak emakumeari aitortu dion roletako bat familia bat edo etxe proiektu bat aurrera ateratzea eta abar delako. Orduan, zentzu horretan, kalean amaitzea porrot handi bat da. Askok etxean aguantatzen dute aguantaezina: indarkeria esplizitoak, jipoiak, sexu behartua eta horrelakoak, porrota etor ez dadin. Eta gero, behin kalean bizi direla, bortxaketaren mehatxua hor dago, etengabe, eta horren aurrean beraien neurriak hartzen dituzte. Esate baterako, lotarako tokia ez errepikatzea. Horrelakoak kontatu zizkiguten. Eta batzuk bere maltratatzailerekin, edo bere gorpuzta saltzen duen tipoarekin elkartzea erabakitzen dute, nahiago dutelako erasotzaile bakarra eduki ez dakit zenbat erasotzaile potentzialen aurrean bere burua ikustea baino.

Horrelako testigantzak geure buruak kokatzeko, beste egoera batzuk hobeto ulertzeko lagungarriak dira?

Egia erran, erakusketa honek ate bat irekitzen du. Hori nahiko genuke, gai honen inguruan pentsaraztea. Kasu batzuetan ikusiko dugu historiak oso urrutikoak direla, eta emakume hauekin zerikusirik ez dugula, baina historia politak ere pasatu zaizkigu. Kasu batean behintzat badakigu emakume batek erakusketa ikusi eta dagoen guztia irakurri zuela, eta Zerbitzu Sozialara joan zela laguntza eske, konturatu zelako biktima zela, berak ere indarkeria jasaten duela. Horrekin bakarrik justifikatu egiten da gure kajekin gora eta behera, bueltaka ibiltzea. Eta nahiz eta oso urruneko kulturetako emakumeak eta historiak izan, gure sentitu behar ditugu, emakume-askapen borrokan hauek guztiak ere besarkatu behar ditugulako.

GBT24

FINAL-LAURDENAK

EIBAR

Urriak 19, larunbata, 17:00
Coliseo Antzokia

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

Babesleak:



Antolatzailea:



Logotzailea:



www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BARIXAKUAK JOLASIAN



eta kitto!
Euzko Elkartea

GAUR, URRIAK 11 EGIGURENTARREN KALEKO PARKETXOAN
17:00-18:00 JOLASAK 2-8 URTE BITARTEKO UMEENTZAT

Udazkena bertso doinuekin dator

Bertsolaritzak eskaintzen dituen aukera ezberdinez gozatzeko aukera izango dugu udazkenean Eibarren. Adibidez, Izan Iñurri elkarteak bertso saio musikatua eskainiko du, Gipuzkoako bertsolari onenak lehiatzen izango ditugu Coliseoko oholtzan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak bertso-paper lehiaketa antolatu du eta baita punta-puntako bertsolarien jaialdia prestatu ere.

Minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik diharduen elkarteak da Izan Iñurri. Iñurritegian hainbat proiektu garatu dituzte minbiziaren errealitatea ezagutarazten eta normalizatzen, eta horren adibidea da 'Tabuen kutxatik oholtzara'.

Bertso-saio musikatua da 'Tabuen kutxatik oholtzara' eta, zenbait herritan egin ondoren, Eibarren arituko dira bihar, urriak 12, 19:00etatik aurrera, Coliseo antzokian. Bertan Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Oihana Iguaran eta Uxue Alberdi bertsolariak egongo dira, Amaia Agirre ibiliko da gai-jartzaile eta Ixak Arrutik eta Oihana Rodriguezek musika jarriko diete bertsoei.

Ikuskizunerako sarrerak 3 eurotan erosi daitezke Kutxabanken webgunean (www.kutxabank.es), Kutxabanken zerbitzu anitzeko



kutxa automatikoetan, edo Coliseo antzokian, gaur bertan 17:30etik 19:30era.

Izan Iñurriren “tribua” minbizia lehen pertsonan bizi duten edo bizi izan dutenek, eta minbizian oso modu zuzenean laguntzen edo lagundu izan dutenek osatzen dute. Tribuak zera ematen duela diote Izan Iñurrikoek: “Epairik ez, bizi penak partekatzea eta ulertua eta lagundua sentitzea, eta ahalduntze indibiduala eta kolektiboa”.

Elkartearen inguruan informazio gehiago eduki nahi izanez gero, izaninurri.eus webgunean aurkitu daiteke.

Gipuzkoako final laurdenak Coliseo antzokian

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak irailaren 14an ekin zion bere bideari, Urretxun, eta abenduaren 14an izango du amaiera, finala Donostiako Ilunben ospatuko delarik. Horra iritsi baino lehen, 48 bertsolari dihardute nor baino nor faseak gaindituz eta final laurdenetako saio bat Eibarren jokatu da.

Eibarko saioa urriaren 19an egingo da, 17:00etan, Coliseo antzokian, eta bertan Agin Laburu Rezola, Alaia Martin Etxebeste, Aratz Igartzabal Bidegain, Eneko Araiztegi Agirre, Haizea Arana Cardenal eta Manu Goigoga Bengoetxea arituko dira. Gai-jartzaila, bestalde, Iban Narbaiza Cevitanes izango da.

Saioa ikusteko bi sarrera bi-koitz zozketatuko ditu... eta kitto! Euskara Elkarteak. Parte hartzeko www.etakitto.eus webgunean aurkituko duzue atal berezi bat

TABUEN KUTXATIK OHOLTZARA
BERTSO SAIO MUSIKATU SOLIDARIOA

BERTSOLARIAK
Alaia Martín
Ane Zuazubiskar
Oihana Iguaran
Uxue Alberdi

GAI-JARTZAILA
Amala Agirre

MUSIKARIAK
Ixak Arruti
Oihana Rodríguez

URRIAK 12
EIBAR
19:00etan
Coliseo Antzokia

Sarrerak: 3€ irailaren 27tik aurrera:

- www.kutzabank.es webgunean
- Kutzabank: zerbitzu anitzeko kutxa automatikoa
- Aldez aurreko salmenta: Coliseo antzokian, astelehen eta ostiraletan (17:30etatik 19:30etara)

Iñurri
AKEBRI

Minbiziaren errealitatea ezagutarazteko eta normalizatzeko euskarazko bertsosaiora izango da 'Tabuen kutxatik oholtzara'. IZAN IÑURRI

>>> Bertsolaritzako lehen saioa Izan Iñurri elkartearen eskutik dator eta minbizia izango du mintzagai ikuspegi feminista batetik

(<https://etakitto.eus/zozetak/gipuzkoako-bertsolari-txapelketa-eibarren>) eta hilaren 16ra arte egongo da epea zabalik. Irabazleak zeintzuk diren hilaren 17an eman-go dugu jakitera.

Saiorako sarreraren prezioa 14 eurokoa izango da (6 eta 18 urte bitartekoentzat 10 eurokoa eta Bertsosole Elkarteko bazkideentzat 12 eurokoa) eta bertsosarrerak www.etakitto.eus webgunean erosi ahal izango dira. Aurrez sarrera guztiak agortzen ez badira, saioaren egunean



Final zortzirenak gainditu ondoren, Eibarko saioan izango da Ane Zuazubiskar. GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

16:00etan zabalduko da Coliseoko txarteldegia.

Eskaintza bikoitza ...eta kitto!-ren eskutik

San Andres eguna bertsoz janzen du Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkarateak eta, horretara, eskaintza bikoitza ematen du. Batetik, San Andres Bertso Paper lehiaketa dugu, 16 urtetik beherako eibartarrei eta 16 urtetik gorako edonori (Euskal Herri mailan) zuzenduta. Eta bestetik, San Andres Bertso Jaialdia, goi-mailako bertsolariak biltzen dituen emanaldia.

Esan bezala, San Andres Bertso paper lehiaketa bi mailatan banatzen da: 16 urtetik beherako Eibarko ikasleena bata, eta Euskal Herri osoko 16 urtetik gorakoena bestea. Parte-hartzeko, gazteenek bertso bat edo bi kopia aurkeztuko dituzte eta helduek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Gaia eta doinuak libreak izango dira eta

>>> Gipuzkoako Final Laurdenetako saioetako bat Coliseo antzokian egingo da

>>> ...eta kitto! Euskara Elkarateak herriko bertsolaritzaren alde egiten jarraituko du San Andres inguruan antolatutako ekimenekin

lanen hiru kopia entregatuko edo bidaliko dira ...eta kitto!-ra (Urkizu 11, solairuartea).

Sariei dagokienez, gazteenek trofeoak eta liburuak eskuratuko dituzte eta helduen artean, berriz, 300 euroko saria jasoko du irabazleak eta 250 eurokoa bigarrenak.

Irabazleek azaroaren 22an, 20:00etan, Coliseo antzokian egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Bertan, sari horiek banatzeaz gain, maila goreneko bertsolaritza saioaz gozatzeak aukera izango dugu Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Jone Uria, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallusen eskutik. Gai-jartzaile lanetan, bestetik, Jon Mikel Mugika izango dugu.

Jaialdirako sarrerak saioa egingo den egunean bertan ipiniko dira salgai Coliseo antzokiko leihatilan, jaialdia hasi baino lehenago.

Amaiera ederra izango da bertsoz beteriko udazkenarentzat.

Euskarak herria kolorez bete zuen

Urtero moduan, urriaren lehen zapatuan ospatu genuen Eibarren ...eta kitto! Jaia, lehengo “sagardo eguna”. Jai giroan eta herritarrekin batera, euskara erdigunera eraman eta elkarrekin musikaz zein sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen. Hurbildu zen jende mordoari esker Untzaga plaza euskararekin betetzea lortu genuen. Gora euskara eta gora zuek!

Gure eskerrik beroenak lanean gogor jardun zuen talde zoragarriari, herriko ostalariei (batez ere Kontent tabernari, “El Cantón de la Avenida”ri, Bolintxo okindegiari, soinu-jole, txalapartari, adar-jole, irrintzilari eta elektrotxarangari, Industrias Pampori, Peña Txinbera eta Kamarroak elkarteei eta Udaleko zerbitzu sailari eta brigadari.

Eta nola ez, eskerrik asko aurten omendua izan den Zaloa Uraini. Urte osoan Untzagan euskarazko solas gehien hartu zuen egunak hurrengorako hitzordua laga zigun. Hurrengo urtekoa 30. edizioa izango da. Ordura arte, ez galdu euskaraz berba egiteko ohitura!









Ainhoa Arreitunandiak irabazi du Sagardo Egunean zozketatu zen saria

Ainhoa Arreitunandiak eraman du Sagardo Eguneko zozketako saria, Elgoibarren saldutako 4947 zenbaki saritua berea zen-eta. Horrela, luxuzko asteburua pasatuko du hilaren 26 eta 27an Gasteizen.

...eta kitto! Jaiko Instagram lehiaketako saria banatu dugu

...eta kitto! Jaian, Instagramen argazki-lehiaketa antolatu genuen. Bertan, photocallean egindako argazki originalena saritzea zen helburua eta Uxue Gisasolak bidalitako argazkia izan da aukeratua. Argazkian, Uxuez aparte, Maddi Gutierrez, Irune Saez, Leire Uranga, Olatz Basterrika, Jugatx Elizegi eta Maialen Blanco agertzen dira. Irabazleak ...eta kitto!-tik pasa dira saria jasotzera: sagardoz, txorizoz eta gaztaz beteriko sorta. Zorionak kuadrilla!

F Ligako lehen derbia jokatu da etzi eguerdian Ipuruan

Ipuruan denboraldiko lehen euskal derbia biziko dugun honetan, F Ligako seigarren jardunaldiko partiduak izango ditu bestelako pizgarriak ere. Horrela, domeka eguerdian, 12:00etan hasita, jokatuko den partiduan Pantxika ere izango da zaletuen artean eta, horrez gain, etxeko txikienek hasierako hamaikakoarekin argazkia ateratzen izango dute zelaian. Gainera,



partidura joaten direnen artean, Ane Camposen eta Arene Altonagaren kamisetak zozketatu dira. Emakumezkoen lehen taldeko gainerako partiduetan bezala, sarrerak 10 euroko prezioa izango dute, 5 eurokoa 13 urtetik beherakoek kasuan. Sarrerak partidua hasi baino ordubete lehenagotik eskuratu ahal izango dira 14. leihatilan, harmaitara sartzeko ate ondoan.

Eibar Saskibaloiko talde nagusiak indartsu hasi du Liga



Aurreko zapatuan Ipuruan jokatu-tako Eibar Saskibaloiko Artesanos Juantxo senior mailako taldeak 78-63 irabazi zion Elgoibarko Modelos Modelberriri. Partiduan hasieratik hartu zuen aurrea etxeko taldeak, lehenengo laurdenean abantaila aterata (26-15). Hala ere, atsedenaldira heldu aurretik, Elgoibarkoak 12-21 nagusitu zirenez, markagailua asko estutu zen (38-36).

Hirugarren laurdeneko parekotasunak (17-16 eibartarren alde) azken laurdenerako laga zuten dena. Hor bi minututan Artesanosekoek lortutako 10 puntuko aldeak erabaki zuen partidua. Modu horretan, Ibai Lekunberrik zuzentzen duen taldea lidergoan dago, Aldapeta Maria Ikastetxearekin berdinduta, bi jardunaldietako partiduak irabazita.

Eibartarrak klubak SD Eibarko Museoan aurkeztu zituen Hummel jantziak

Eibartarrak futbol klubak denboraldi honetarako jantzi berriak aurkeztu zituen aurreko astean SD Eibarko Museoan. Klubak Hummel kirol erropako markaren eskaintza aprobetxatu du, horrela SD Eibar-ekin bat eginez marka bera erabiltzeko aukerarekin. Hori bai, klubeko talde guztiek euren betiko marra zuri-beltzekin jarraituko dute, bakoitza bere babeslearen izenarekin: aurtent Talleres Caño, Metronic, Cons-



trualbide, Pinturas Blas eta Gastesi Dental, Sasoian ongizate-zentroarekin batera.

SD Eibarko Museoan egindako aurkezpenean 1999an Espainiako Superkopa irabazi zuen Eibartarrak-eko emakumezkoen taldeko

jokalari asko izan ziren eta, eurekin batera, Jose Antonio Palomo Hummel Espainako ordezkaria, Mikel Larrañaga SD Eibar Fundazioko presidenteordea, Jon Iraola alkatea eta Aitor Campos Eibartarrak-eko kirol koordinatzailea.



Doha Shrir eta Hegoi Esteban judoko Espainiako Kopan

Kalamua judo taldeko Doha Shrir-ek Kantabriako Espainiako Judo Kopan parte hartu zuen zapatuan, 62 kilora arteko emakumezkoen kadete mailan. Lehen borrokaldia galdu ondoren, errepeska baten zain geratu zen txapelketan jarraitu ahal izateko, baina ez zuen zorterik izan. Hala ere, Espainiako Kopa batean egindako lehen parte-hartzean egindako lana positiboa izan zen eta etorkizunerako metatutako esperientzia balio handikoa izango zaio. Hegoi Esteban entrenatzailearentzat ere lehen parte-hartzea izan zen txapelketa nazional batean.



Jardunaldi Mikologikoetako perretxikoak biltzeko irteeran parte hartu zuen taldea.

Hiru eguneko irteera antolatu dute Liebanako mendietara azaro hasieran

Eibarko Klub Deportiboak, Elgoibarko Morkaiko mendizale elkar-tearekin batera, azaroaren 1, 2 eta 3ko astebururako irteera antolatu du Liebanako mendietara. Lehenengo eguneko etapa Allenden hasi eta amaituko da, bidean Pico Agero igoz; bigarrenean Salarzonetik Lebeñara joango dira, Peña Ventosara igota; eta hirugarrena Baro eta Potesen artekoa izango da, Tartean Pico Jano zapalduz.

Barixaku goizaldean irtengo dira Eibartik eta prezioak honakoak dira: 240 euro bazkideentzat, eta 265 bazkide ez direnentzat. Izena ematerakoan 50 euroko fidantza jarri beharko da eta kontua hau da:

ES8530350078 8407 8000 5897. Prezioan bidaia eta ostatuko afora, logela eta gosaria sartzen dira; norbere kontu izango dira, bestalde, egun bakoitzeko bazkariak. Jakina, federatuta egotea beharrezkoa da.



Gisasola eta Segurola, garaile Hernanin.

Segurola-Gisasola jubenilak bigarren fasera pasatzeko garaipenaren bila

Gipuzkoako Txapelketako lehen faseko azken jardunaldian, Deportiboko jubenil mailako bikoteak hurrengo faserako txartela eskuratu nahi izango du gaur, 20:00etatik aurrera, Villabonako bikotearen aurrean. 18:00etan hasiko den jaialdian, dena dela, aurretik pilota eskolako ordezkarien arteko

lagunartekoak izango dira jokoan: gaztetxoan mailan, Manex Kerejeta eta Egoi Motriko Gari Olaetxea eta Urko Isoren aurka; jarraian, Markel Segurola eta Markel Urain Manex Arrieta eta Patxi Floresen kontra; eta hirugarrenean, Amillategi eta Del Rey kadeteek indarrak neurtuko dituzte buruz-burukoan.



Bihar hasiko dira gurean Gipuzkoako bakarkako xake txapelketak

Zazpi zapatu hartuko dituen txapelketari emango zaio hasiera bihar. Lehenengo jardunaldi hori Errebal Plazan jokatu bada ere, hortik aurrerakoak Deportiboko lokaletan izango dute kokagune. Txapelketak probintziako jokalaririk onenak bilduko ditu, eta partida guztietan jokalaririk bakoitzak ordu eta erdi izango du partida jokatzeko, egindako jokaldirik bakoitzeko erlojuan beste 30 segundo gehituz. Partidak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira. Aurrez ere jokatu zen Gipuzkoako txapelketa gurean, 2006an.

Partida azkarrak

Aurreko asteburuetan, bestalde, Errebal Plazak partida azkarren probintziako txapelketak ere har-

tu izan ditu. Taldeka Errenteriako Fomento Cultural nagusitu zen eta banaka Gros Xake Taldeko Alex Odriozola. Taldekakoan Gipuzkoako guztitik etorritako 70 jokalaririk elkartziren, eta Klub Deportiboak bi talde aurkeztu zituen: A taldea (Olmo, Arana, Aranzabal eta Garrido) 9. postuan sailkatu zen, 33 punturekin, eta B taldea (Belar, Freire, Etxaburu eta Beorlegi) 12. ean geratu zen.

Odriozolak irabazitako banakoan, Oier Sarasketak eta Xabier Aranzabalek osatu zuten podiuma. 37 jokalaririk izan zituen txapelketan Eibarko zortzi ordezkari hartu zuten parte: Olmo, Arana, Aranzabal, Larreategi, Garrido, Freire, Etxaburu eta Belar.



Ricardo Roblesek partida irabazi zuen.

Casinoko billaristek debut bikaina izan dute

Casino Artista Eibarreseko ordezkariak puntu bat ekarri zuten Alcobendasetik, 2. Mailako lehenengo jardunaldian launa puntura berdindu eta gero. Debuta zen eibartarren tzat horrelako lehiaketa batean eta ezin hobeto hasi zuten norgehiagoka, Jorge Molinos (28-30) eta Ricardo Roblesen (21-37) garaipenekin.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Athletic (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Eldense (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Alaves B (bihar, 15:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Osasuna B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Derio - EIBAR C (bihar, 17:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Basauriko Kimuak - EIBAR C (etzi, 12:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Idiazabal (bihar, 12:30)

Zarautz B - EIBARTARRAK (bihar, 17:30)

Erregionaleko 1. Maila

Mondragon B - URKI B (etzi, 12:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Vasconia (etzi, 12:00)

Jubeniletako Liga Nazionala

Real Sociedad B - EIBAR B (etzi, 18:00)

Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Betoño (etzi, 18:00)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Eguzki B

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Lauko Ermuko (gaur, 20:45)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Ereintza - MEK EIBAR (bihar, 12:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Irauli Bosteko - MEK EIBAR B (etzi, 12:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Donibane (bihar, 11:30)

FRRUGBIA

Emakumezkoen Erreginaren Kopa

CRAT Rialta - EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Atlético SS - EIBAR (bihar, 16:30)

“Bizitza nekez konta liteke literaturak ematen dizkigun tresnarik gabe”

HARKAITZ CANO • Idazlea



“Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez” album ilustratuarekin etorri da Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975) Harixa Emoten irakurketa-klubera. Fernando Bernuesen antzezlan batean oinarrituta dagoen lan horrek aita batek eta haren alabak euren arteko komunikazio-haustura berrezartzeko liburutegi eta kontakizunetan barrena egiten duten bidaia ederra erakusten digu. Aste honetan jakin dugu, gainera, Euskadi Literatura Saria irabazi duela Canok lan horrekin, haur eta gazte literatura atalean.

Alabarekin nola komunikatu ez dakien aita batek literaturan aurkituko du euren arteko harremana onbideratzeko bidea. Lan honek liburuen eta bizitzaren arteko lotura erakusten duela esan daiteke?

Literatura maite dugunok ez ditugu biak aparte ikusten: liburuek bizitza ispiilatzen dute eta, batzuetan, bizitzak liburuak... Oscar Wildek baikortasun handiz eta ponpezia are handiagoz esan ohi zuenez, bizitzak kopiaetzen du artea eta ez alderantziz. Tira, ez da beti horrela, baina... Bizitza nekez konta liteke literaturak ematen dizkigun tresnarik gabe: laburpena, elipsia, esajerazioa... Hori guztia literatura da.

Bada liburutegiei egindako nolabaiteko omenaldia. “Pozet betetzen gaituen espazio boteretsu” gisa aldarrikatzen duzu liburutegia...

Trajanoren bibliotekaren atarian halaxe dago idatzia: “Arimaren Ospitalea”. Niretzat liburutegiak mundua ordenatzeko modua dira, norbaiten etxera sartu eta bere biblioteka ikusita haren bizitza osoa agertzen zaizu aurrez aurre, zure bibliotekak biluztu egiten zaitu erabat. Biblioteka publikoen zale amorratua naiz, liburutegi batera liburu jakin baten bila sartu eta haren ondoan hura baino interesgarriagoa den bat topatzearen pareko plazer gutxi daude. Ia esoterikoa ematen du, baina halaxe gertatzen da sarri: behar zenuen liburua, bila joan zarenaren ondoan egoten da askotan... Liburutegi batean promesa bat egiten duzu: liburua itzultzeko promesa. Ze beste erakunde dago halako konfiantza ituna ahalmentzen dizuna?



Aita-alabaren arteko komunikazio-haustura kontaktuzun eta poemen bitartez ehuntzen joango da. Bauer, Cortazar... hainbat egileren testu txikiak ageri dira liburuan. Liburutegiei ez eze, literaturari berari ere egin nahi izan diozu omenaldia?

Bai, niretzat kuttunak diren liburu fetixek eta testu zatiak dira asko. Gure liburuak, finean, besteen liburuekin elikatzen dira. Uste dut idazleonekin egin behar moraletako bat dela maite ditugun idazle eta istorioei buruz hitz egitea, haien lanak gurera ekarri eta itzultzea...

Ohituta gaude liburuak antzezlan bihurtzera baina ez horrenbeste alderantziz, hau da, antzezlan bat liburu bihurtzera, ezta?

Kasu berezia izan da, paraleloki sortzen joan ziren biak hemen, liburuak zein antzezlan. Antzezlaneko protagonistak –idazlea bera– liburu bat aurkezten zuen antzezlanaren barruan eta bururatu zitzaigun ederra litzatekeela liburu hori benetan existitza...

Isabel Herguerak egin ditu ilustrazioak. Nolako izan da elkarlana?

Herguerak lan asko egin izan du animazioaren arloan, baina bere lehen liburu ilustratua zenez, haren ohiko lanerako moduarekin bat etortzea zela onena pentsatu genuen: 16:9 formatu laukiluzeko irudiak dira, oso zinematografikoak eta organikoak, geruzaz beteak, berak ohi duenez. Testuaz harandiko interpretazio aske eta ederra egin zuen Isabelek.

Eskaraz eta gaztelez ez ezik, zein beste hizkuntzatan argitaratu(ko) da albuma?

Katalanez ateratu zen, eta antzezlan galegoz ere egin zenez, pentsatzen dut aurki aterako dela hizkuntza horretan ere gutxienez.

Hitzarekin zerikusia duten ia arlo guztiak ikutu dituzu 19 urterekin lehen liburu argitaratu zenuenetik: antzerkia, nobela, poesia, komikiak... Non sentitzen zara erosoen?

Niretzat ipuina da generorik kuttunena. Azken finean, nobela bat eskuetatik joan zaizun ipuin luze bat da, eta poema, berriz, ipuin trinko gisako bat izaten da sarri. Pelikula bat ikusi ondoren, norbaiti kontatzen diogunean ipuin bihurtzen dugu, halaber. Ipuina da taupardarik organikoena niretzat.

Txikitatik argi al zenuen literaturara dedikatu nahi zenuela? Zer eskaintzen dizu literaturak?

Aldez edo moldez istorioak beti kontatu izan ditut, bai. Literatura aho biko ezpata da. Batzuek diote kaosa ordenatzeko balio duela, baina beste batzuetan guztiz alderantziz da: ordenean kaosa txertatzeko ere balio lezake, probokatzeko, zer pentsa emateko, irakurlearen baitan deserosotasuna eragiteko...



"Liburutegi batean promesa bat egiten duzu: liburu itzultzeko promesa. Ze beste erakunde dago halako konfiantza ituna ahalmentzen dizuna?"

Nola ikusten duzu gaur egun euskal literatura? Eta nola irudikatzen duzu etorkizuna?

Barietate handia ikusten dut, belaunaldi gazte oso indartsu bat, ahots sendoak... Badago zer irakurri!

Martitzenean izan zinen Eibarren euskarazko irakurketa-taldean. Pentsatzekoa da aberasgarria izango dela zuzen-zuzenean zure irakurleen usteak, hausnarketak, iritziak... entzutea, ala?

Bai, egia esan saio gutxi egin ditut liburu honekin, liburu ilustratuak haur eta gazteentzat soilik direla ulertzen du jende askok oraindik eta zaila da eskoletatik kanpoko saioak egitea halako liburuekin, zinez pozgarria izan zen gonbidapena. Funtsean, liburuei buruz hitz egitea liburu ahoz berpizteko eta modu kolektiboan berri-dazteko modua da...

Zer darabilzu esku artean? Zein arlo lantzeko asmoa duzu?

Ziklo poetiko bat itxizat eman dut azken urteotako bi poemarioekin eta orain narraziogintzan nabil... Alternantziak ahalmentzen dit nire buruarekin gehiegi ez aspertzea. Antzezlan bat idazten ere ari naiz.

Zer ari da irakurtzen Harkaitz Cano?

Beñat Sarasolaren "Coca-cola bat zurekin" irakurri berri dut eta Uxue Alberdiren "Hetero" irakurtzeko irrikaz nago oraintxe.

Judash, iruzurrik gabeko metala

Judas Argarate izateari utzi eta Judash izen berriarekin diskoa kaleratu dute Markel Iraolak, Joseba Goñik, Hodei Otegik eta Ekaitz Vegasek. Hainbat urtetan zehar beste musika taldeen bertsioak egin ondoren, euren konposaketekin osatu dute taldearen izen bera daraman diskoa, taldearen esentzia hutsa daraman lan borobila. Rock metal musika barrenetik ateratzen zaio laukoteari. Beraz, iruzurrik ez metalgintzan diharduten lagunek sortutako taldea izanik.



Elkarrizketaren
BIDEOA



Hainbat urtez oholtza gainean Judas Argarate moduan ezagutu ondoren, taldea osatzen duen laukoteak beste pauso bat eman nahi izan dio taldearen norabideari. “Iker Amutxastegi lankideari omenaldia egiteko sortu genuen taldea eta izena broma bezala jarri genuen. Izen horri eutsi diogu orain arte, baina diskoa egiteko izena aldatu behar genuela erabaki genuen”, azaldu digu Hodei Otegik. “Seriotasun puntu bat eman nahi genion”, zehaztu du Markel Iraolak. “Izan ere, berez, izena Judas Argarate and The Txoripans zen eta lotsa eta guzti ematen zigun”, diosku barrez.

Judash izen “motzagoa eta zuzenagoa” dela azpimarratzen du Ekaitz Vegasek: “Errazago ikasten da”. Hori bai, ez galdetu hitz amaierako ‘h’ horregatik. “Horrela irten zitzaigun eta gustatzen zaigu”, dio

laukoteak. Gainera, uste dute den-denak ere ez duela azalpenik behar.

Seriotasuna eman nahi izan diote, taldeak ere bide serioa hartu duelako lehen diskoa grabatuz. Musika egiten urteak daramatzan taldea da Judash, baina beste taldeen bertsioak ikusi dituzte batez ere eta abesti propioekin sortu dute diskoa. “Bertsioak jotzea oso dibertigarria da, baina momentu baten gorputzak zerbait berria egitea eskatzen dizu”, azaldu digu Ekaitzek. “Poliki-poliki ideiak ekartzen hasi ginen eta lokalean garatzen joan ginen. Forma polita hartzen hasi zirela ikusi genuen eta denon artean osatzen joan ginen”, gehitzen du.

Abesti bat sortu zuten, ondoren beste bat, eta gero eta gehiago motibatzen hasi ziren. Sorkuntza propioak zituzten, baina taldekide guztiek ez zuten argi diskoa grabatu behar zutenik. “Eztabaidatxoak izan genituen. Nik, adibidez, ez nuen



Legarreko musika-lokaletan entseatzen dute Judash taldekoek. EKIBELAR

potrorik”, diosku Markelek barrez. “Asko iruditzen zitzaidan estudioan sartzea eta, egia esan, zaplastekoa hartu genuen”, zehaztu du.

Walterekin grabaketa

Walter Tuzzeo lagunarekin hasi ziren diskoa grabatzen eta bere belarri finak taldearen hainbat uste dantzan jarri zituen. “Abestiak grabatzeko prest genituela pentsatzen genuen eta, berak entzun ondoren, irailera bidaltzen zigun, errekupe-ratzera”, gogoratzen dute barrez. “Erronka izugarria izan zen guztiontzat eta Walterrek asko lagundu zigun, asko”, diosku Ekaitzek. “Ez zen akatsak azpimarratzen ibiltzen, baizik eta hobekuntzak bilatzen”.

Walterren esku sartzea ez zen arlo teknikora bakarrik mugatu, abesti batzuen konposaketak ere aldatu egin zituztelako bere gomendioz. “Oso ideia onak zituen”, goraipatzen dute. “Oso zorrotza zen”. Wal-

Judas Argarate taldea zena Judash deitzen da orain eta izen bereko lehen diskoa kaleratu du

terrekin igarotako orduetan asko ikasi zutela diote laurek, ez bakarrik diskoa grabatzeko orduan, baita zuzenekoetarako ere. Musikari hobeak egin ditu Walterrek eta, beste hainbat gauzengatik aparte, oso eskertuta daude berarekin topo egiteagatik.

Diskoaren grabaketa-prozesu betearen harrapatu zien Walterren

heriotzak eta gogor eragin zien. Maila pertsonalean zer esanik ez, baina euren proiektuari dagokionez ere zer egin pentsatu behar izan zuten. “Ez genekien nora jo”, diosku Josebak. “Nik dena amaitzen zela pentsatu nuen”, Hodeiren berbetan. Aste batzuetan diskoaren inguruan berba egin gabe egon ziren eta Markelek dio ez zela batere eroso izan Walterren artxiboetan bila ibiltzea eta arakatzea. “Baina Bea (Walterren emazteak) demaseko txapelduna da eta berehala esan zigun diskoa atera behar genuela, eta eskerrak, bestela ez baikeuen aterako”, azaldu digu Markelek.

Lanaren zatirik handiena eginda zegoen, nahastea falta zen batez ere, eta horretaz arduratuko zen beste pertsona baten bila hasi ziren. “Ez da gauza makala, teknikari batzuk oso lanpetuta zeudelako eta beste batzuek ez zutelako beste batek hasi duen lana amaitu nahi. Azkenean,

Judashen lehen diskoak harrera polita izan du eta zenbait zuzeneko eskaintzeko aukera sortu zaie



bakoitzak bere egiteko moduak ditu eta ulertzekoa da”, diosku laukoak. Azkenean, Mutrikuko AME estudioko Axular Arizmendirekin amaitu zuten diskoa eta horrek diskoari beste plus bat eman diola uste dute. “Axular nahiko espezializatuta dago estilo horretako musikan lan egitera eta beste kutsu bat eman dio diskoari, potentzia gehiago”, euren iritziz.

Estilo ugariko diskoa

Taldekideten berbetan diskoa estilo ugarikoa da. “Baten batek definitu zuen punk-rock-metal nahasketa arraro bat bezala”, diosku Hodeik. “Diskoko abesti zaharrenek punk kutsu gehiago dute eta kanta berriek ñabardura heavyagoak dituzte”, zehazten digu Ekaitzek, “eta balada bat ere badago!”.

Taldeak beti jo du mota ezberdinetako musika, baina Markelek



Estreineko diskoa da Judashekoentzat. EKHI BELAR

dio Ekaitz taldean sartzeak aukera gehiago eskaini ziela gauza ezberdinak egin ahal izateko. “Lehen, bateria Carlos Balseirok jotzen zuen, baina bera berez ez da bateria-jolea. Ekaitzek demaseko ‘zapatila’ ematen dio bateriari”, gehitzen du.

Judasheko kideak “flipatzen” ari dira diskoak izan duen harrerarekin. “Ia kopia guztiak saldu ditugu”, dioskue. Plataforma digitaletan ere entzungai dago diskoa eta erreproduktzio dezente ari dira edukitzen.

“Pozik gaude, diskoa kaleratzearekin zenbait zuzeneko eskaintzeko aukera sortu zaigulako”, esan digu Markelek.

Hemendik urte amaierara hiru kontzertu eskainiko dituzte: Gas-teizeko Orbain kultur elkartearen (azaroak 30), Sorluzeko Gazte-txean (abendua 21) eta Eibarren. Azken kontzertu horren data eta tokia ez digute zehaztu. “Eibarkoa sorpresa da oraindik”, amaitzen du barrez laukoak.



BAZKIDE zertarako?

Euskarazko kultur eskaintza zabala antolatzeko



Illunabarrian

Era, gai eta formatu ezberdinetako hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta ikuskizunak. Bospasei ekitaldi antolatzen ditugu urtean zehar. Euskaldunei zuzendutako aisialdi, formazio eta kultur eskaintza ematea da helburua eta, aldi berean, euskaldunen arteko harreman-sarea osatzea, erabilera zabaldu dadin.

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!



Eva Guerreroren “Tierra de nadie” dantza ikuskizuna

Eva Guerreroren dantza konpainiak *Tierra de nadie* ikuskizuna eskainiko du gaur Coliseo antzokian, 19:00etatik aurrera. Zuzendariak dioenez, “*Tierra de nadie* dantza da, ahotsa, zuzeneko musika, atmosfera poetikoak, natura, emakume-animaliak, gorputz arrotzak, soinu oroitarazleak... Baina, beste ezeren gainetik, gorputzaz, gorputzaren lurraldeaz, gorputzaren mugez mintzo da. Gorputz neurrigabeaz eta gorputz desordenatuaz”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



Kaleko emanaldiak agurtuko ditu Musika Bandak domekan

Udarekin batera amaituko da Eibarko Musika Bandaren kaleko kontzertuen denboraldia. Domekan arituko dira kalean azkenengoz, datorren urtera arte. Kontzertua Toribio Etxebarrian izango da, 12:30ean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan joko dute). Andoni Vazquez Santos zuzendariaren berbetan, “domeka eguerdiko kontzertu klasikoa izango da”. Denetarik interpretatuko dute: pasodoblea, zarzuela, euskal konpositoreen pieza bat, *La Paloma* abestiaren bertsiio “berezi” bat...



Tia Carroll rhythm and blues-aren erregina Coliseon

Mundu osoko jaialdi, klub eta antzokietan aurkezpen arrakastatsuak egin dituen Tia Carrolllek kontzertua emango du etzi Coliseo antzokian, 19:00etan (sarrerak 10/7 euro balio du). 80ko hamarkadaz geroztik, Kaliforniako abeslariak esperientzia baliotsua pilatu du, B.B. King, Ray Charles, Jimmy McCracklin, E.C. Scott eta generoko beste mito batzuekin batera aritu eta gero. Adituen arabera, “Koko Taylor, Tina Turner eta Aretha Franklin bezalakoek inspiratuta, zirkuituan ezagun egitea lortu du”. Europako biraren barruan etorriko zaigu, berarekin biran ibili ohi diren lehen mailako musikari europar ospetsuek osatutako taldearekin batera.



Etxepare saria irabazi zuen “Mamuki” liburua kalean

Ekainean Etxepare saria bereganatu zuten Nerea Ariznabarreta eta Maite Rosendek beraien lana, Mamuki izenburuko liburua, eman dute argitara. Sor-kuntza lana Nerea Ariznabarretaren eskutik joan da, eta ilustrazioaz Maite Rosende arduratu da. Mamuki beldurrari buruzko album ilustratua da. Istoria Gau Beltzean garatzen da, non mamuek bizidunak beldur-tu behar dituzten.



Juan Antonio Palacios irabazi du Indalecio Ojanguren Ohorezko Saria

Epaimahaia bildu eta erabakia hartu eta gero, aste honetan eman dituzte ezagutzera Indalecio Ojanguren XXXVII. Argazki Lehiaketako irabazleak, eta oraingoan sari nagusia etxean geratuko da, Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideak eramane baitu bilduma onenari ematen zaion Indalecio Ojanguren Ohorezko Saria, goiko irudian ikusten diren hiru lanekin (*Retrato de una sardina*, *Naufragio* eta *La patata*).

Aurtengo lehiaketara aurkeztutako argazkien artetik onenak aukeratzeko ardura Begoña Guillen Monterok (Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Federazioko lehendakariordeak), Maria Jose Cueli Zabalak eta Ignacio Garay Hinojalek izan dute, eta erabakia aho batez hartu dute. Sari nagusiarekin batera banatzen diren beste Indalecio Ojanguren Sariak, berriz, Joan Serrano Zoroa, Angel Atanasio Rincon, Jose Lopez Gimenez eta Oskar Mansorentzat izan dira. Euskal Herri mailako saridunak Josean Carbajo, Javier Ortiz eta Juan Carlos Romero izan dira; eta Eibarko Sariak, berriz, Pedro Arriola, Jose Maria Artetxe eta Bakarne Elejalde Klub Deportiboko argazkilariak eskuratu dituzte. Horrez gain, Malen Carbajo izan da onena 8 eta 16 urte bitarteko parte-hartzaileen artean. Eta 06/2024 Argazkiola lehiaketarako sailkatu diren partaideak hauek dira: Juan Antonio Palacios, Oskar Manso, Josean Carbajo, Javier Ortiz, Juan Carlos Romero eta Pedro Arriola. Sariak banatzeko ekitaldia Portalean egingo dute, saritutako lanak eta lehiaketara aurkeztutako beste batzuk bilduko dituen erakusketaren inaugurazioarekin batera. Urriaren 25ean izango da hitzordu bikoitza, 19:00etan.



Magia-ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Magia-ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek martitzenerako, Illunabarrian programaren barruan. 7 urtetik gorakoei zuzenduta dago (haurrek heldu batek lagunduta hartuko dute parte), eta elkartearen egoitzan egingo da, 18:30etik 20:30era. Imanol Ituiño magoa ekarriko du Eibarrera ...eta kitto!-k ikastaroa ematera. Mago profesionala da, hainbat sari irabazi ditu eta Gure Zirkuko magoa da gaur egun. Izena emateko epea zabalik dago: www.etakitto.eus elkartearen orrian dagoen inprimakia bete daiteke, elkartea@etakitto.eus helbidera mezua bidali, edo telefonoz deitu, 943200918 zenbakira. Izen-emateak 5 euro balio du (4 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat).

Zilarrezko Euskadi Literatura Sarien kanpaina liburu-dendetan

Gipuzkoako liburu-dendek 2024ko Zilarrezko Euskadi Literatura Sarien inguruko kanpaina antolatu dute. Gipuzkoako 30 liburu-dendek egin dute



bat ekimenarekin, tartean Eibarko Burbujas y Más dendak. Horrela, zerbait erosten duen bezeroak kode bakarra duen orri-markagailu bat jasoko du, Euskadi Literatura Sarietarako finalistaren artean gehien gustatu zaionaren alde bozkatu ahal izateko (www.gipuzkoaliburudendak.com webgunean). Urriaren 20ra bitartean martxan egongo den kiniela asmatzen duenak 2024ko Zilarrezko Sarien irabazleekin batera Donostiako jattetxe batean bazkaria irabazi dezake, baita kategoria bakoitzeko obra irabazleak barne hartuko dituzten lau liburu-sorta ere.

			9		
7		5	1 6		9
	9 8				4
		1	3	7	
	3 6			9 5	
	1	6	9		
1				2 4	
	7	2 4	8	6	
			6		

8		5 7 3			2
					7
		2 8	1 9		
				7 4	
	2	9	4	6	
6 1					
	5 8	7 4			
7					
1		8 3 9			5

soluzioa



A	L	C	B	E	F
B	C	D	E	F	G
C	D	E	F	G	H
D	E	F	G	H	I
E	F	G	H	I	J
F	G	H	I	J	K
G	H	I	J	K	L
H	I	J	K	L	M
I	J	K	L	M	N
J	K	L	M	N	O
K	L	M	N	O	P
L	M	N	O	P	Q
M	N	O	P	Q	R
N	O	P	Q	R	S
O	P	Q	R	S	T
P	Q	R	S	T	U
Q	R	S	T	U	V
R	S	T	U	V	W
S	T	U	V	W	X
T	U	V	W	X	Y
U	V	W	X	Y	Z

SUDOKUAK

soluzioa

S	T	U	V	W	X
T	U	V	W	X	Y
U	V	W	X	Y	Z
V	W	X	Y	Z	A
W	X	Y	Z	A	B
X	Y	Z	A	B	C
Y	Z	A	B	C	D
Z	A	B	C	D	E
A	B	C	D	E	F
B	C	D	E	F	G
C	D	E	F	G	H
D	E	F	G	H	I
E	F	G	H	I	J
F	G	H	I	J	K
G	H	I	J	K	L
H	I	J	K	L	M
I	J	K	L	M	N
J	K	L	M	N	O
K	L	M	N	O	P
L	M	N	O	P	Q
M	N	O	P	Q	R
N	O	P	Q	R	S
O	P	Q	R	S	T
P	Q	R	S	T	U
Q	R	S	T	U	V
R	S	T	U	V	W
S	T	U	V	W	X
T	U	V	W	X	Y
U	V	W	X	Y	Z

LABIRINTOAK



7 DESBERDINTASUN



Urriak 11/17

BARIXAKUA 11

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Egiguentarreneko parkea.

DANTZA

19:00 "Tierra de nadie" (Eva Guerrero konpainia). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



ZAPATUA 12

TAILERRA

11:00/14:00 Akuarela tailerra (hastapenak), Santiago Entrenaren eskutik. Doan. Ipuuruako merkatu plaza.

BERTSOLARITZA

19:00 "Tabuen kutxatik oholtzara" bertso saio musikatu solidarioa. Bertsolariak: Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Ohiana Iguaran, Uxue Alberdi. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Musikariak: Isak Arruti, Ohiana Rodriguez. Antolatzaileak: Iñurri eta Eibarren Akebai. Coliseo.

DOMEKA 13

UDAZKENTRAIL

08:30 Udazkentrail mendi-lasterketa. Klub Deportiboko Mendi Taldeak eta Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta. Hasiera Klub Deportiboko parean.



MANIFESTAZIOA

12:00 "Palestina askatu", Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez taldeek deituta. Untzaga.



MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea (euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan).

MUSIKA KLUBA

19:00 Tia Carroll (soula, bluesa). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



MARTITZENA 15

ILLUNABARRIAN

18:30/20:30 Magia ikastaroa, Imanol Ituño magoarekin. Zazpi urtetik gorakoentzat. 5 euro (4 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat). ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokala.



EGUAZTENA 16

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio zerbitzua, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

EGUENA 17

HITZALDIA

17:00 Hijos de Gabilondo eraikinaren eraiste partzialari eta birgaitzeari buruzko hitzaldia, Jon Iraola alkatearen eskutik. Beheko Tokia gizarte-ekintza gunea.



ERAKUSKETAK

Urriaren 20ra arte:

- "MNEMÓSINE", Carmen Palomeroren artelanak. (Portalea).
- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINISZENTEAK". (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

11n (BARIXAKUA)

Antzokia

20:30 Ermua Antzokia
"Se alquila"

MUTRIKU

12an (ZAPATUA)

Azoka

09:00/14:00 Beheko Plaza
Merkatu Txikia +
Garagardo Dastaketa



DEBA

12an (ZAPATUA)

Topaketak

11:00 Debako Gaztetxea
Debabarreneko Gazte
Asanbladen Topaketak

SORALUZE

13an (DOMEKA)

Kontzertua


12:30 Herri Antzokia
Jazz For Children

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **12an:** 22:30
- **13an:** 20:00
- **14an:** 19:30

“Emmanuelle”
DRAMA



2024/ Frantzia /117'
Zuzendaria: Audrey Diwan
Aktoreak: Noémie Merlant,
Naomi Watts, Will Sharpe
Erotismoa/ Remakea

2 ARETOA

- **12an:** 19:45 (1 Aretoa)
- **14an:** 19:30

“Crossing”
DRAMA



2024/ Espainia /106'
Zuzendaria: Levan Akin
Protagonista: Mzia Arabuli,
Lucas Kankava, Deniz Dumanli
Transexualitatea/ Road Movie

ANTZOKIA

- **12an:** 17:00, 19:45, 22:30 (2)
- **13an:** 17:00, 20:00 (2 Aretoa)
- **14an:** 19:30

“La infiltrada”
DRAMA



2024/ Espainia /118'
Zuzendaria: Arantxa Echevarria
Aktoreak: Carolina Yuste,
Luis Tosar, Victor Clavijo
Thriller-a/ Terrorismoa/ ETA

1 ARETOA

- **12an:** 17:00
- **13an:** 17:00

“Zak & Wowo”
ANIMAZIOA



2024/ Frantzia /85'
Zuzendaria: Philippe Duchene
Abenturak/ Fantastikoa

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea
herriko aldiarikian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

IMANOL ITUINO GURE ZIRKUKO MAGOA

URRIAK 15 18:30

+7 HELDU BATEK LAGUNDUTA

EZ DA INOLAKO TRUKETASUNIK BEHAR

5€ PERTSONAKO

4€ BAZKIDEAK

MAGIA
ikastaroa
Publiko Guztientzat

EMAN IZENA

ELKARTEA@ETAKITTO.EUS
943200918

etakitto!
euskara elkarteak

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ARTZAI!!!**
Gaur 8 urte!!! Askok maitte zaittugu, txapeldun!!!
Koikilli eta Naike.



Zorionak, **NAHIA**,
hillaren 9xan 7 urte bete zenuduzen eta. Segi beti bezain alai. Askok maite zaittugu.



Zorionak, **LAIA!**
Martitzenian 12 urte egin zenuduzen eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **KALA**,
bihotza!! Bixar 3 urte eder!! Dantzan eta kantuan jarraituko dogu, izarretaraño eta bueltan!!



Zorionak, **MARKEL!**
Domekan 8 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu!!!



Zorionak, **NAHIA**,
aurreko zapatuan 9urte bete zenuduzen eta!! Segi horren alai!! Musu haundi bat Nile eta etxekuen partez.



Zorionak **TELMO!**
Hilaren 16an 2 urte beteko dozuz! Patxo potolo bat etxekoen partez!



Zorionak, **SARA** (5 urte eginda abuztuaren 23an) eta **NICOLAS** (gaur 9 urte). Famelixa guztiaren partetik.

<p>*** FUNEUSKADI Funerariak</p>	<p>*** FUNERARIA MUGICA Funerariak</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Elber: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 15</p>
<p>Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao Portugaleta - Santurtzi - Basauri - Galdakao</p>	

Iñaki Arregi Guruzeta

Eibarren jaio zen 1932 urtean. ALFAN lan egin ondoren, fraide sartu zen Beneditarrekin. Bere bizitza Estibaliz eta Lazkaon igaro du, urriaren Zan hil arte.

GOIAN BEGO,

"Gure bihotzean egongo zara betirako"

- ETXEKOAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskakerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan eta ospitalean ere. Orduka. 613287661.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta ospitalean ere. 679912841.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan eta ospitalean ere. 632844780, 632768653.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 643464307.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile bezala, garbiketarako egiteko eta zaintzetarako. Esperientzia handia. 682737282.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. 631462540.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. 614197781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta ospitalean ere. Orduka. 631425686.
- 21 urteko neska lanaldi partzialeko haurtzain lana egingo

luke, bere ikasketekin uzartzeko. 631418235. Nora.

- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta pasiatzeko. 617571210.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da tabernarako. Interesa duenak pasatu Bako-Lekutik (Ego-gain, 2-4).
- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizitzen (interna). 607540772.
- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitariario agiria. 688670009.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Filosofian graduatuak (ingelesko eta euskarazko C1 tituluduna) LH-ko eta DBH-ko klaseak ematen ditu. 688861740. Urko.
- Gitarra klaseak ematen dira, banaka edo taldeka: harmonia, erritmoa, teknikak, inprobisazioa... Ia 10 urteko esperientzia. 633585077. La Manouche.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Elkarre gastronomikoa bazkideen bila. Lokal ederra. Rol-jokoak, zine kluba... Estaziño. badokelkartea@gmail.com



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clínica estética

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Aurreko gaitzak
- Beltzak

Kirurgia
- Beltzak, belarriak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 841
www.clinicarecalde.com



Psikologoak



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA
HAUR, NERABE ETA HELDUEGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Ebebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lali
GOMEZ DIA-ARRASALDEZ
Urkiizu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023

ANE YESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
625 003 251 info@draanesvega.com
WWW.DRAANESVEGA.COM



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagola Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776



Ideia on batetik



sortuko da

zure negozi**o**a.

L**o**kalk txar batekin ordea, akabo[†].

Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.

Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir